

ARRASATE


PRESS

MARAÑON GESALAGA EDURNE
LORAMENDI KALEA, 06-10.C
ARRASATE

2

Arrasate 1985 Abenduak 1 43. zentakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**Damaso
Gallastegi**

*Txapela buruan
eta ibili munduan*



LORAMENDI KIROLAK

INTERSPORT®



BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak:

Arrasateko Eskualde-Ospitalea	795300
Igualatorioa	790500
Santa Agedako Ospitalea	
(gizoneak)	793900
(emakumeak)	794411
Buru osasunerako zentrua	799011

Gurutze gorria:

Bergara	765576
---------------	--------

DYA

Antzuola	766291
----------------	--------

Anbulatorioak

Arrasate	791357
.....	799722
Oñati	780852
Eskoriatza	798896
Aretxabaleta	797458
Aramaio	(945) 455116

Anbulantziak:

Gipuzkoako ambulanziazak	458744
--------------------------------	--------

Udaltzaingoa:

Oñati	780411
Bergara	761469
Arrasate	791439
Aretxabaleta	791052
Eskoriatza	790322

Ertzantza:

Arrasate	797199
----------------	--------

Suhiltzaileak:

Udal taldea	790900
Udal taldeko suhiltzaile	
burua	792072
Zubillagako Eskualde-Parkea	782800

Matxurak:

Urak (udal zerbitzua)	790900
Elektrizitatea (Iberduero)	790581
Gasa	900 400 523
.....	79 78 44
.....	79 76 78

Garraioak:

Taxiak	791222
P.E.S.A.	791419

Hirugarren adinarentzako zentruak:

Iturbide Egoitza	797211
Abaroa jubilatuen egoitza	798157

Kontsumitzailearentzako informazioa:

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak	798777
--	--------

1 OSTIRALA

—Zinea:

- Alai: "Muerto al llegar". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Batman". 10,30etan.

— Goardiako farmazia:

M. Cortuera. Musakola.

2 LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Super agente K-9". 5, 7,30 eta 10etan.

Novedades: "Batman". 5,30, 7,30 eta 10,30etan.

- Antzerkia: "La funcionaria" antzerki taldearen eskutik "Los funcionarios (Brigada especial) antzeslana ikusi ahal izango dugu. Amaia antzokian, gaueko 10,30etan.

— Goardiako farmazia:

J. A. Irizar. Erguin.

3 IGANDEA

— Zinea:

- Alai: "Super agente K-9". 5, 7,30 eta 10etan.
- Novedades: "Batman". 5,30, 7,30 eta 10,15etan.

— Goardiako farmazia:

L. Amezua. Santa Marina.

4 ASTELEHENA

— Zinea:

- Alai: "Super Agente K-9". 7 eta 9etan.
- Novedades: "Batman". 7,30etan.

— Goardiako farmazia:

A. Ruiz. Magdalena.

5 ASTEARTEA

— Zinea:

- Alai: "Gringo viejo". 7 eta 9,30etan.

— Hitzaldia: "Naturazaleen sukaldaritza". Patxi Gerartaren eskutik. Arratsaldeko 3etan AED elkartearen lokaletan.

— Goardiako farmazia:

A. M. Morales. San Andres.

6 ASTEAZKENA

— Zinea:

- Alai: "Gringo viejo". 5, 7,30 eta 10etan.

— Goardiako farmazia:

A. Azkoaga. Ferrerías.

7 OSTEAGUNA

— Zinea:

- Alai: "Gringo viejo". 5, 7,39 eta 10etan.

— Goardiako farmazia:

S. Español. Iturriotz.

ERAKUSKETAK

Oñatiko Etxe Aundi jatetxeko erakusketa aretoan, abenduaren hemeretzi-ara arte, Jose Mari Ugaldere pintura lanak ikusgai.

AUTOBUSAK

Larunbat honetan, Abenduak 2, "Euskarak bizi behar du" lelopean manifestazioa antolatu du *Euskal Herrian Euskaraz* taldeak. Manifestaldi horretara joateko autobusa eratu du AED elkarteak. Izen ematea Hire liburudendan eta Iturriotz tabernan.

DURANGOKO AZOKA

Datorren asteartetik igandera arte Durangon burutuko den Euskal Liburu eta Azokan AED elkarteak stan-a izango du. Bertan aurkituko ditugu Jazten aldizkaria eta Arrasate 88 lehiaketetan saritutako lanen bilduma.

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Arrasate pasealekua, 3-Bis, behea.
20500-ARRASATE -TF.79 71 64

Laguntzailea: Arrasateko Udala

Zuzendaria: Joxe Aranzabal

Erredakzioa: Jon Andueza
Bego Zubia

Publizitatea: Josune

Maketazioa: Goio Arana

Erredakzio-kontseilua: Jose Felix
Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki
Mendiguren

Kolaboratzaileak: Josemari Velez de
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele
Zuazubiskar, Patxi Montero,
Juan Martin Elexpuru, Mikel
Arregi, Eukeni Olabarieta, Arantxa
Lizaso, Gerardo Markuleta,
Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai,
Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Mila
Galañena, Blanka Jauregi, Klarion
Taldea, Joseba Vallés, Karmelo
Uribarren, Iñaki Aranburu,
Hankamotzak.

Inprimategia: Gertu Koop. E.

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Harpidetzak: Arrasate pasealekua 3
Bis, behea. 79 71 64

Copyright: ARRASATE PRESS

Tirada: 5.600 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako esanen
eta eritzien erantzunkizunik.



Baita baserriak ere

Direla zenbait aste, orrialde honetan argitaraturiko "Astoak" artikulua zela eta, dei batzu jaso nituen, astoak ez ezik, gure herrian baita baserriak ere desagertzeaz daudela gogoraraziz. Eta, mendeetan zehar gure arkitekturaren eredu eta oinarri izan diren eraikin horiek, astoek beste arretarik merezi dutela oroitu didate. Arras ados baieztapen horrekin, zoritxarrez!

Hirurogeigarrenetako hamarkadan hildako arrasatearren batek burua altxatuko balu, jakingo al luke non aurkitzen den? Eta, kontuz!, hogeitertetako jauzi txikia besterik ez dut egin; zer gertatuko ote, berriz, mende osoko tuneletik atzerantz egingo bagenu? "Arrue" izan ei da azkena. "Kataide", "Txosa", "Markulete", "Makatzena"... eta abar luzea azaldu beharko nuke azkeneko urteotan betiko desagerturiko baserrien zerrenda egin nahi izanez gero.

Baserriak, gure izanaren lekukotasunik hurbilenetakoa, izanaren mamia bera. Edozein herriren arkitekturak herri horren historia adierazten digu. Ez, noski, gerra eta suntsiketa besterik gogoratzen ez duen historia, herri horren giza-prozesua hobekien azaltzen duena

baizik. Sinesmen, sentimendu, ohitura eta errito konkretu batzuen jabe izan den herriarena. Arkitektura ez da egite hutsa eta itxura ez da berez egituratzen den zerbait, hamaika elementu eta arrazoiren ondorioa, baizik. Baserri bat desagertzen denean ale bat galtzen da. Arriskua, ordea, aletegi osoa desagertzean datza, baserri horiek -euren osotasunean- herriaren beraren estiloa erakusten baitute.

Garapenak -denboraren aliaturik sutsuena omen- gure artxibategi bizi eta oroigailuak suntsitu dituenan, gizonaren etxearekin berdin egiten jarraitzen du, gure iragan fisikoa hauts bihurteraziz. Ez genuke ahaztu beharko kultur eta arte ondarea irauterazten duen Herria bere etorkizuna tinkotzen ari dela.

Arrasaten -beste hainbat lekutan bezalaxe- hiri-arkitektura, gure iraganeko oroimen-zentzua, ahultzen ari da, poliki poliki. Iraganeko bizitza-beharkizunek ez dute iraun ahal izan gaurko gizarteak ezarritako baldintzetatik zehar. Eta, gezurra dirudien arren, multzo-deserosokeria garaile irten da, baserri-estiloaren bizkar. Agian, gizonaren beraren alukeria justifikatuz.

Josemari Velez de Mendizabal

UGARAN
jatetxea

Garagaritza auzoa - t/797658 Arrasate

enpresa
bazkariak
eta famili bilerak



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa:799457

**GIROA
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

“PAL”

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribari etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99



**BELUN
TABERNA**

Lagunarte bikaina

Garagartza Auzoa,z/g Tfnoa:796114

KAJOI TABERNA

erdiko kale 22
tfnoa: 79 32 27

Bertsolaritza, Deba-Garaian, indartu beharrean

Bertsozale sutsu bezala, oso gustora jarraitu ditut azken bi hilabete hauetan izan diren Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren kanporaketa ezberdinak. Txapelketa honetan, Herrialde ezberdinetako kanporaketak eginda gero, 40 bertsolarik izango dute parte hartzeko aukera, eta benetan kezkatzen nauena zera da: 40 bertsolari hauetatik, bakarra dugu Deba-Garaikoa, Jon Sarasua atxalbatar fina, hain zuzen ere. Zein da arrazoia Deba Garaiko bertsolari bakarra, eta arrasatear bat ere ez izateko txapelketa honetan? Gaian pixkat sakonduz gero, erantzuna nahiko erraza da, nere ustez. Arrasate inguruan bertsolari gutxi ditugu, eta daudenak, jendaurrean, oso saio gutxi izaten dituzte, bertsolaritza oso gutxi lantzen da bertako ikastetxeetan eta, azkenik, une honetan, bertsolari izateko ametsa duten haurrei erakusteko eta trebatzeko ez dugu bertso-eskolarik.

Egia da azkenokaz urrats batzuk eman direla alor honetan: AED Elkartearen bertso-afariak izaten dira, Elkarte honek antolatzen dituen literatur lehiaketen artean bertso-paperekin dugu, Santamas jaietan antolatzen den bertso-saioa arrakastatsua samarra suertatzen ari da..., baina guzti hau ez da nahikoa eta inguruko bertsozaleok, gure eskualdean bertsolaritza indartzea eta maila oneko bertsolariak sortu nahi baditugu lanari ekin beharrean gaude lehen baitlehen.

Eta bukatzeko, berriz txapelketari lotuz, ea gure “figura”k Gernikan Azeptian izan zuena baino zorte hobetagoa duen eta Donostiako Belodromoan ikusten dugun txapela lortzeko borroka bizian. Aupa Jon!

G.P.

Irkurle maitea:

Datorren astearen jaiak direla eta, abenduaren 15era arte ez dugu Arrasate Pressik aterako. Ordura arte bada, ondo izan.

**ARRASATE
PRESS**

Eskerrik asko

Agur t'erdi

Nire eskerrik beroena luzatzen dizuet, zuen astekariari esker galduta neukan erlojua aurkitu bait dut.

Oso interesgarria da zuek egiten duzuen astekaria.

Segi beti horrela eta zorionak.

Maite

Zorionak eskubaloikoei

Aurtengo denboraldian pena ematen du gure herriko kirol talde ezberdinen emaitzak irakurtzea. Mondrak zazpi partidua behar izan ditu zaletuen aurrean bat irabazteko; Rugby taldeak bat irabazi eta lau galtzen ditu; saskibaloian zortzi ihardunalditan zazpi porrot jasan dituzte; Pedrusko ondo baina ez hainbeste, nesken futbol taldea gaizki, etab. luzea.


Eskerrak eskubaloiko mutilak fin ari direla, eskerrak! Beraiek lortu dute orainarteko txapela bakarra (Federazio Kopan), eta ligako lehen bi partiduetan ere garaile izan dira. Ederto, eta halere haien partiduetan kiroldegia erdi hutsik.

Lerro hauen bidez, Arrasate Kirolak eskubaloia taldea osatzen duten guztiei zorionak eman, eta Arrasateko jendeari partiduetara hurbiltzeko eskatu nahiko nioke, guztion artean taldeak merezi duen lehenengo mailara igotzeko.

Ale ba!

Kepa Garzia

Arrasatek badu aparkamendu arazorik? Zure eritziz nola konpon daiteke?



Danel Goikolea
(ikaslea)

Arazoa jendeak kotxe larregi eta bizikleta gutxiegi duela da. Hori bai, bizikletan ibiltzeko ere bideak behar dira.



Milagros Ule
(etxeakoandrea)

Bai, badago. Beharbada autoa gutxiago erabiliz zerbait konponduko litzateke.



Arantxa
(etxeakoandrea)

Bai, badago aparkaleku arazoa. Nik aparkaleku gehiago eginez konpon daitekeela uste dut.



Julian Fernandez
(langilea)

Nik ez dut kotxerik baina badirudi badagoela. Jendeak kotxea gutxiago erabiliko balu konponduko litzateke.

L E N I Z

AUTO ESKOLA

ARRASATE-Aldai, 9-Tlf. 79.46.04

ESKORIALTZA-Arana, 13-Telf. 79.36.59

Otalora 2, ARRASATE

Fotokopiak
Enkuademazbook
Planoen erreproduktzioa
Offseta

Ferrerias 23,
ARRASATE Tfnoa: 79 46 62

Jesus Giraldo

LISERI-APARATUA

X izplak, endoskopia
(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prevlasa, Adeslas
(Muface) eta partikularrak
Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

Memesa

79 42 22

“Guk badakigu ondotxo zertan gabiltzan eta nondik nora doan egiten dugun musika. Eta guztiok bat gatoz jarraitu behar dugun bidean, guztiok gustokoa dugulako. Nahaspilarik bat ere, beraz. Txorradak dira, pentsatu gabe botatako komentario aluak, inoiz ez benetazko adierazpenak. Eta beroiekin artikulo bat egitea, Makazaga jauna, ez zaigu iruditzen oso ‘profesionala’ denik. Gure erreputazioa ia txikitu duzu, intenziorik gabe izan bada ere. Kontu handiagoa, beraz, hurrengoan”.

(SS-77 musika talde arrasatearrak “Argia” astekarian)

“Iragarri bezala, asteartean bildu zen Espainiako Legebiltzar berria eta Felix Pons sozialista lehendakari zatituz aukeratu, EAko diputatuen botoez, besteak beste. Hala ere, botazioa izan eta zortzi ordu beranduago, EAren Gipuzkoako ejekutibaren buru den Angel Larrañagak ez zekien oraindik bere diputatuek Ponsen alde botoa eman zutenik eta are gutxiago zergatik”.

(“Eguna” astekarian)

“Beno, tiroak baino petardoak zirela ematen zuen. Nik, egia esan, ez dut inoiz pistola hotsik entzun, baina beti pentsatu ohi dut han entzun nuena baino hots handiagoa zuela.

(...) Hura benetakoa zela konturatzen nintzen eta une hartan, —eta Iñaki Esnaolarekin batera, berau ere konturatu zelarik, mahai azpira borta ginen.(...) Oraindik ere burua lanean daukat, bizi bizirik daukat, baina oraindik ere ez dut sinesten gertaera hura”.

(Jose Luis Elkoro “Egin” egunkarian)

Nola ikusten duzu aurtengo bertsolari Txapelketa Nagusia?

Bertsolari Txapelketa Nagusiak alderdi onak eta txarrak ditu. Alderdi on bezala, bertsolaritza indartzeko, berrikuntzak ezagutzera emateko eta bertsolaritza zabaltzeko balio duela aipatu nuke. Alderdi txar bezala bertsolarien norgehiagoka hori eta jasan behar izaten duten urduritasuna aipatu behar. Txapelketa baten eta plazan bertsoak botatzea ez da gauza bera jakina. Plazan bertsolariek ez dute inorekin lehiatu beharrik, bertsoak bota eta listo. Txapelketan gaia ematen zaio eta horren inguruan ahalik eta bertso borobilena bota behar du.


Aurten esaterako, Egañak doinu berria plazaratu du, eta hori asmatzeko ordu ugaritan egin beharko zuen lan. Telleriak ere beste doinu berria eskaini du. Txapelketaren lan garrantzitsuen bertso sena herrian zabaltzea eta bertsozaletasuna zabaltzea da.

Txapelketa irabazteak ez du esan nahi bertsolaririk onena denik, egun horretan ondoen ibili dela baizik. Txapelaren irabazle gutxien uste duguna gerta daiteke. Aurten gazteak, Egaña eta Eguzkitze, oso ondo dabilta eta Lopategi ere hor dugu. Txapela gehien arriskatzen duenak irabazten du, ondo ateraz gero, jakina.

Aurtengo txapelketa neurrian doala uste dut. Nafarroan eta Bizkaian aurrez eginak zeuden sailkapenak eta Gipuzkoan egin zirela urtebete izan da. Txapelketan denbora beharrezkoa da bertsolari guztiek aukera izan dezaten egin dezaketena agertzeko.

Patxi Goikolea

Bertsolari elkarteko ohorezko bazkidea



AUSTIN ROVER



AUTO SAN ANDRES



IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE

100. liburura iritsi da gure «literatura» bilduma.

BABILONIA

Joan Mari Irigoien



euskal literatura-elaberrria

ELKAR

Durangoko azokarako prest

Beste 100 betetzen lagunduko diguzulakoan Zorionak guztioi!

Beste hamaika liburu eta disko berri DURANGOKO AZOKAN

ESKA EZAZU, MUXUTRUKU, ELKARen ALDIZKARIA

Eléctrica ZUBIETA

Zubieta 50,
Tfnoa: 76 16 79
BERGARA

BRANKA

JATETXEA
Eguneko menua
eta karta

TITARE

LENTZERIA FINA
Olarte kalea, 8
ARRASATE

Onduline

TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta 1. Tfnoa: 79 23 18 ARRASATE

ARTEGA

Pinturak, opariak
eta jostailuak
Erguin 10, ARRASATE

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

BERANGO

Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko ateak
Legarreko pabiloi industrialak
(behea) Tfno: 79 01 92
ARRASATE

PROMOCIONES MARKULETE, S. A.

NABE INDUSTRIALEN SALMENTA

Mendi-Etxebarrin

445 m² tik aurrera sarbide zabalarekin

*Plantartekoa eta zubi-garaia, aukeran.

*Xafla bikoitz eta isolamenduzko estalkia

*Zerbitzuak: Saneamendua, telefonia, energia elektrikoa
eta edateko ura.

Informazioa eta salmenta: Tfnoak: Gasteiz 28 67 60

27 79 60

Arrasate 79 97 95

prentsaren begia

OSTIRALA 24

CORREO: "Arrasateko alkateak hosteleri gremioa deituko lokal hauek arautzen dituen araudi berria tratatzeko".

DEIA: "HBk aurkeztutako mozioa onartu ez".

DV: "AUKEAk dioenez, Arrasaten egunero 700 bazkari zerbitzatzen dituzten 15 jatetxe dago".

LARUNBATA 25

CORREO: "Arrasateko OHoko eskola-umeen artean sekulako arrakasta Montterroneko kontsumo-tailerrek".

DEIA: "Kontsumitzaileentzako jardunaldietan arrakasta ezberdina"

DV: "Kontsumo-jardunaldiak: gazteek partaidetza handia eta ezberdina helduentzakoenetan".

EGIN: "Osakidetzak Gureako orubea onartu osasun-zentru bat eraikitzeko".

IGANDEA 26

CORREO: "Gazteen eguna gaur amaituko".

DV: "Ea, bada, zazpigarrenean lortzen duten!"

EGIN: "Tabernari eta Udalaren arteko bilera udal araudi berria tratatzeko"

ASTELEHENA 27

CORREO: "Korporazioak gaur tratatuko hurrengo Santamasetako programa"

ASTEARTEA 28

CORREO: "Lautik hiru gaztek elkarte edo taldeetan integratzeko uzkur".

DEIA: "Talde ekologistek ehizaren aurkako mozioa aurkeztuko".

DV: "Azkenean 'Mondra'k Atxabalpeko partidu txarrak gainditu eta Zumaiako taldeari irabazi".

EGIN: "Gazteria Batzordea pozik antolatutako ekintzetan izandako partaidetza handiagatik".

ASTEAZKENA 29

CORREO: "Arrasateko Santamasak-89 jairako aurrekontuak aurten 6 milioi pezetakoa gainditu".

DEIA: "Union Cerrajeran greba egiteko proposamena".

DV: "Bi ordu baino gehiagoko bilera Alkatetza eta Hosteleri Gremioaren artean".

EGIN: "Udalak Gabonetako oporretarako haur-parkea eta ludoteka antolatu".

OSTEGUNA 30

CORREO: "Korporazioak bihar emango 'baimena' Arrasaten lurrazpiko aparkaleku bi eraikitzeko eskaintza bakarrari".

DEIA: "Jose Maria Arizmendiarieta gogoratzeko ekintza".

DV: "Santamasak antolatzeko 5 milioiko aurrekontua".

EGIN: "Santamasak, Arrasaten bizi-bizirik dagoen tradizioko jai".

Usteak uste...

Aste honetan lapurren bisita izan dugu Arrasate Pressen. Gauaren babesa eta leihoen hurbiltsun eta ahuldadea aprobetxatuz, berenak eta bost egin dituzte. Diru bila etorri omen ziren eta horrelakorik ez zegoenez, argazki makina eraman zuten. Eskerrak ez zituztela ordenadoreak ostu, irakurle, zeren bestela aste honetako Arrasate Press ez zen zure eskuetan egongo. Eskerrak eman behar gainera lapurrei kontsiderazio hori behinipein izan dutelako.

Kasua da nor berari tokatzen zaionean batek errazago jakin izan ohi dituela ingurukoan antzeko arazoak eta, dirudienez, Mondragoen azken aldi honetan lapurreta mordoa ematen ari da. Salaketa idatzi zigun ertzaian ere ez zuela Arrasate bezalako kasurik ezagutzen adierazi zigun.

Dirudienez, gainera, jendeak -eta agintariak- ba omen dakiite nortzuk diren, zainetan edozelango pizgarriak egunero sartu ahal izateko diru beroa behar dutenak. Makinatxo bat aldiz harrapatu dituzte, Bergarako epailearen aurrera eraman eta ertzainak berebilera itzultzen direnerako, gure ohoinek ekin diote txikiteoari.

Gaitza ez da gure artean soilik ikusten. Damaso Gallastegi bergararrak zorte handiagoa izan zuen eta bere sosak -zati bat behintzat- berreskuratu ahal izan zituen, aste honetako erreportaiaren kontatzen digun bezala. Lapurrari eta poliziari diru apur bat eman behar izan zien, gogoz kontra izan bazen ere. Behar bada, gauzak ez badira konpontzen guk ere horrelako zerbait egin beharko dugu.

Joxe Aranzabal



OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: *Otalora 1ean*
 Biltegi berria: *Meatz-Erreka*

ARRASATE

KIROLDEGI

JATETXEA

EGUNEKO MENUA

ETA KARTA

Rock jaialdia Arrasaten

Kiroldegia goiko puntaraino bete larunbatean

Zita garrantzitsua izan genuen larunbatean, eta *Stiff Little Fingers* irlandarrak eta *SS-77* arrasatearrak ikusteko goiko puntaraino bete zen Musakolako Kiroldegia.

11k inguruan ekin zioten jaialdiari. Arrasatearrak igo ziren lehenik, ordu beteko ekitaldia eskainiz. Majo aritu ziren, eta jendea gustora. (Ze zorion polita kantatu zion jende guztiak Pirañari).

Ordubata aldera, Irlandarrak eskenatokira. Zaletu ugari euren zain, baina egia esan nahiko hotz sumatu genituen.

Ordu bete eskas egon ziren han (saio makala, 1.200 pta. ordaindu behar zirela kontutan izanik), eta




noski, jendea protestaka guztiak ere gehiago eskatzen zutelako.

Pare bat Bis eskaini eta alde egin zuten. Pena, mundu guztia abesti gehiago entzuteko gogoz gelditu zelako; baina tira, etxeko tokadis-koan kontsolatu behar!

Erakusketa Etxe-Aundin

Azaroaren 19tik abenduaren 19ra, Jose Mari Ugalde bergararren pintura erakusketa izango dugu Oñatik Etxe-Aundin.

1946an jaio, eta gaur egun Barzelonan bizi eta lan egiten du. Parisen burutu zituen *Artearen Historia eta Filosofia* ikasketak, Vincennes-ko unibertsitatean.



Besaidekoen diapositiba emanaldia

Ostiralean, arratsaldeko 7,30etan, mendiarri buruzko diapositiba emanaldia eskaini zuten Besaide Mendizale Elkartekoek, Monterroneko kultur aretoan. Ekintza hau "Gazteen Egunak" egitarauaren barne antolatu zuten, eta esan behar jende ugari hurbildu zela bertara. Muntaiak politikak erakutsi zituzten, musika eta irudiarekin jolastuz.



Anboto

INBERTSIO ETA ZERBITZUAK
AHOLKULARI INMOBILIARIOAK

Salgai edo alokatzeko dauden etxeak, Leintz bailara eta Oñati aldekoak batez ere, behar ditugu Anboto Inmobiliarian

Propietate inmobiliarioaren agenteak, inmobiliaria honetan egindako salmenta eta kontratuak garantizatzen dira.

FIDA ZAITEZ

Iturriotz kalea 11, Tfnoa: 79 20 48 ARRASATE

baldara

Medikuntza orokorra
Txertaketak
Kirurgia
Laborategia
X izpiak
Odontologia
Ile apaindegia
Urgentzia 76 27 97

Koldo Eleizalde 28, etxebehea.
Tfnoa: 76 27 97 BERGARA



Obererreka



Cordoba y Oro enparantza

Lurrazpiko aparkalekuak

San Andreseko Cordoba y Oro enparantzan eta Makatzenako Obenerrekan lurrazpiko 350 aparkaleku-gune eraikiko dira. Udalaren asmoa zera da, aukeratuak suertatzen diren pertsoneri milioi baten truke gune horiek 50 urtetarako uztea (inoiz ez propietatean ematea). Erabaki honen bitartez, aparkaleku horiekin espekulaztea galerazi nahi dute.

Gaia ostiraleko plenoan jorratuko da. Beste puntu batzuen artean, proiektuarekin aurrera segitzeko baimena nori ematen zaion erabakiko da; dena den, kontutan izanik "Euskal Promociones S.A." enpresa bizkaitarra izan dela aurkeztu den bakarra, antza eurek hartuko dute egitasmoaren kargu.

Cordoba y Oro plazako aparkalekuak bi solairu edukiko

ditu, 180 guneekin. Obenerrekakoak, berriz, lau solairu eta 164 toki. Proiektua 18 hilabeteren barruan bete nahiko luke Udalak, baina jakina, hainbeste denboratan arazo askori aurre egin beharko diote. Bukatzeko gogoratu Ferialean eta Santa Teresan ere lurrazpiko aparkalekuak eraikitzen ari direla, baina biak enpresa pribatuen esku gelditu ko dira (Amaia antzokiaren truke).

Gorka

**ILEAPAINDEGI
MIXTOA**



Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoa: 79 96 80 eta 79 63 27
ARETXABALET

Maiatz

**ILEAPAINDEGIA
mixtoa**

Elkano, 38 (Musakola)
Tfnoa: 79 58 78
ARRASATE

Felipe Arrizabalaga


aroztegia



Legarre pabilola Tfnoa: 79 22 76 **ARRASATE**

LOREA

Oinetakoak
eta poltsak
Paz 9, Tfnoa: 25 66 32
GASTEIZ



Koperatiben II Biltzarra

350 ordezkari bilduko Gesalibarren

Datozen ostiral eta larunbatez Arrasateko Kooperatiben elkarteak bere bigarren Biltzarra egingo du, oraingo honetan Gesalibarko Aita Meni eritexearen areto nagusian.

Laurogeitamazazpi kooperatibetako 350 ordezkari hartuko dute parte bigarren Biltzar honetan. Ostiralean, goizeko bederatzietan emango zaio hasiera Plenoari. Arratsalderako hiru lantalde eratuko dira aurkezten diren ponentziak eztabaidatzeko. Lehenengoan, kooperatiben arteko heziketa eta pro-

moziorako fondoa sortzea eztabaidatuko da. Bigarrenean, Talde Kooperatiboan antolaketarako oinarriko arautegia sortzea eta hirugarrenean lan-sustapena. Larunbat osoa taldetan erabakitakoa eztabaidatzen emango dute.

Bigarren Biltzar hau Alfonso Gorroñogoitiaren lehendakaritzapean egingo da. Lehenengoa orain bi urte egin zen Arrasaten, taldearen politika taldeak berak ezartzeko beharra ikusi eta gero. EEEan sartu aurreko une hauetan batipat.

■ AED lehiaketak 89

Azaroaren leian amaitu zen aurtengo AED lehiaketa eta Iokin Zaitegi itzulpen laburren sariketan lanak entregatzeko epea. Gauzak horrela, modalitate bakoitzean honako partaidetza hau izan dugu:

Iokin Zaitegi itzulpen laburren sariketan guztira 23 lan jaso dira; Hamar frantzesetik itzuliak, zazpi ingelesetik, lau katalanetik, bat galegotik, eta esperantotik beste bat. Lan kopuru polita, kontutan izanik itzulpena erderatik ezin zela egin.

Ipunetan, 76 partaide (a ze gorakada), bertso-paperetan hamabost, poesian hamabi, komikian bederatziz, zortzi argazki multzo, eta bideoan bat bakarra (urtero bezala modalitate urriena izan dugu).

Dagoeneko epai-mahaiak osatuak dira, eta abenduaren erdialdera jakingo dugu beraien konposaketaren berri, finalista izatera iritsi diren izenekin bat. Bestalde, gogoratu sari-banaketa abenduaren 21ean izango dela, Monterronen.

Jaiotzak

Ormaetxea Fortuna *Iñaki*, azaroaren 8an
Medina Azpiazu *Izarne*, 21ean
Rodriguez Olivenza *Leire*, 21ean
Beitia Unamuno *Iraia*, 22an
Iregi Ureta *Aitor*, 27an



jolas

Gabon hauetan...

ZURE OPARI DENDA

Barrenkale 27, BERGARA

olioak,
lientzoak,

Artea
akwarelak eta
arte ederrak

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DETURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Arrasate pasealekua 3 bis, Behea ARRASATE- Tfnoa:79 71 64

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**



Gipuzkoa Etorbidea 22,
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE



Santamasak prestatzen

Gobernu Batzordean aurrekontua onartu

Arrasateko Udalak aurtengo Santamas jaietarako aurrekontua onartu du. Gastua 5.395.000 pta.koa bada ere, ekitaldi batzuen sarrerekin 700.000 pta. jasotzea espero dute. Horrela, Udalak 4.695.000 eman beharko ditu aurtengoan.

Egitaraua abenduaren 15etik 24ra luzatuko da. 15ean bertan, Benito Lertxundiren jaialdiarekin emango diote hasiera. 16an, larunbata, X. Santamas pilota txapelketaren finalak. 17an XI. Santamas Krossa, Mondra F. T.-ren himnoaren aurkezpena, umeentzako jolasak

eta Eguzki taldearekin dantzaldia.

21ean, AED lehiaketan sari-banaketa, liburu-diska azoka, eta Anker taldearekin dantzaldia. 22a egun galanta izango da: Santamas feria Azoka plazan, abere feria, artisauak, aizkolariak, harrijasotzaileak, herri bazkaria, bertso saioa, etab.

23an, Goiko Balu abesbatzaren aurkezpena eta rock jaialdia (*Hertzainak, M-ak, Zarama*). 24an, egitaraua amaitzeko, 11etan Txoronpio eta 6etan Olentzero jaitsiko dira kalera, ikatzak mendian utzi eta guztiontzat opariak ekartzera.

Argia sariak

Pasa den ostegunean, aurtengoan lehen aldiz antolatu dituzten Argia sariak eman ziren Lasarteko Txartel hotelean. Ideia gerra denborako *Eguna* egunkariko kazetariari omenaldia eskaintzea bazen ere, bide batez Euskal medio ezberdinetako langileak saritu zituzten.

Egunaren izenean aita Santi Onaindia karmeldarrak jaso zuen oparia. TBko saria Mikel Olazabalentzat (*Kirolez Kiroleko* zuzendaria), irratikoa Luzien Etxezarretarentzat (*Gure irratikoa*), eta prentsa idatzian Martin Ugalde izendatu zuten.

Sari berezia, *Euskalerrria iratiarentzat*, eta bere izenean Mikel Bujandak jaso zuen. Azkenik, aurtengoan aipamen eta sari berezia inoiz jasoko ez duen Josu Muguruzarentzat. Banaketaren ondoren afari ederra (eta han izan ginen Arrasate Press-ekoak ere).



LASAGABASTER

Jantzidenda

Bertan izango duzu beti modako jantzirik onenen aukera zabalena

Garibal 9, Tfnoa: 79 89 97



Durangoko azoka

Euskal liburu eta diskoak, abenduaren 7tik 10era

Abenduaren 7an irekiko da XXIV. Euskal Liburu eta Disko azoka Durangon. Goizetan 10,30etatik 2etara, eta 4,30etatik 9ak arte egongo da zabalik. Aurtengoan 126 stand irekiko dira; liburuena Azoka plazan eta diskoena alboko kalean.

Azpimarragarria da AED Elkarrekin ere bere etxola izango duela.

Argitaletxe ezberdinei dagokionean, esan behar bai Erein eta bai Elkarrek haurrentzako bildumak aterako dituztela batez ere. Literatu-

ra arloan, Ereinek Patxi Zubizarretaren *Jesus, Marie ta Joxe*, J.M. Mendizabalen *Ilargia lekuko*, Felipe Juaristiren *Arinagoa duk haizea*, Absalon eta Camilo J. Celaren *La familia de Pascual Duarte* liburuen itzulpena kaleratuko ditu.

Elkarrek, berriz, Omar Navaroren *Odoleko eskifaia*, Martin Ugalderen *Batasun eta zatiketen artean*, eta Literatura kolekzioaren 100. alea izango den Juan Mari Irigoienek idatzitako *Babilonia*

EKiren mozioa

Aretxabaletako *Amilott*, Bergarako *Mendia Bizirik*, Eibarko *Kattagorri*, Eskoriatzako *Txanxangorri* eta Deba Garaiko EKI ekologista elkarteek mozio bat aurkeztu dute Deba Garaiko herri guztietan, Udaleko plenoetan eztabaidea dezaten.

Mozioan faunak gaur egun duen egoera larria salatzen dute, eta eskaera luzatzen diote administrazioari, babestu beharrezkoak diren interes kolektiboak aurre egin diezaieten.

Besteak beste, honako puntu hauetan oinarritzen da eskaria:

1. Segurtasun Guneak gordetzea.

2. Mendietan animaliak "solte uztea" debekatzea, aurrez inpaktuaren azterketa egin gabe.

3. Udal domeinukoak diren lur publikoak, ehiza praktikatu ezin diren gunetzat aitortzea.



GAURKO S.A.

INDUSTRIA ETA AUTOMOZIOTAKO
LABAINGARRIAK BERE INSTALAZIO BERRIETAN

Kataideko Industrialdea 1 eta 2

Musakola z/g 51 postakutxa. Tfnoa: 79 46 33 /78 Fax: 798411 ARRASATE

INFORMATIKA AKADEMIA

🍏 Ikastaroaren iraupena: 30 ordu

🍏 Talde murriztuak, gehienez lau ikasle

🍏 Oso klase praktikoak

AUSART ZAITEZ!!!

Dr. Bañez 13an gaude (San Andres)
Tfnoa: 79 18 08 ARRASATE



Alaitasuna Gazteen Egunetan

Positibotzat jotzen du Gazteria Batzordeak Gazteen Egunetarako prestatutako egitasmoak izan duen arrakasta. Ekintza ugari, eta guztietan ere herriko gazteen partehartzea azpimarratu behar.

Ostiralean, Monterronen, Besaide Mendizale Elkartek diapositiba emanaldia eskaini zuen arratsaldean. Gauez ere, herriko rock taldeen jaialdian (DDDP, Zakarrak eta Xementerio) eta 3etatik aurrera Ostarkun antolatutako "lanbada" txapelketan lagun ugari elkartu zen.

Larunbatean, jai-giro ederra kailean. Txalapartero eta "Aizpurutxo"

taldeko hankaluzeeekin esnatu baginen, poteoa eta herri bazkaria ere ez ziren makalak izan. Arratsaldean hor ibili ziren gora eta behera "Tunantes del Norte" antzerki taldekoak jendeari makina bat barre eraginez. Zer esanik ez, gauean Musakolako Kiroldedia bete-bete Stiff Little Fingers eta SS-77 taldeak zuzenean ikusteko.

Ekitaldiak igandean amaitu ziren. Goizean xake partidak Seberon, jolasak Iturripen eta Delta-hegoa (Murutik batek salto egin zuen). Arratsaldez haur jolasak, eta agurra emateko antolatutako txokolatada.

Iruditan




Parques y Jardines S. A.

**PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ**

Casa-Torre kalea. Tfnoa: 94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)

Atxiloketak Arrasaten

Orain dela hilabete hasitako ikerketen ondorioz, pasa den astelehenean Ertzaintzak Oxarako kamarrera den Javier H.G. atxilotu zuen, eta baita momentu haietan berarekin zeuden zazpi emakumeak ere (ustez prostituzioan aritzen direnak). Kasua da Javier H.G.ren etxea arakatzera koan 2.200.000 pta, 100 dosi-heroina, ordulariak, bitxiak, etab aurkitu zituztela. Badirudi Javierrek proxeneta eta trafikante talde bat zuzentzen zuela, eta ondorioz espetxeratu izan da. Zazpi emakumeetatik bi, ostera, Polizia Nazionalaren eskutan jarri dituzte atzerritarrak direlako.



Autobusak Donostiara

Larunbat honetan, abenduak 2, manifestazioa antolatu du Euskal Herrian Euskaraz taldeak "Euskarak bizi behar du" lemapean Manifestazioa 5,30etan izango da Donostiako Boulevardean, eta bertara joateko AED elkarteak autobusak antolatu ditu. Autobus hauek 3,45etan irten-go dira Garibaitik, eta prezioa 500 pta.koa izango da. Izena eman nahi duzuenok jo AEDra (795446), Hire liburudendara edo Iturriotz taberna-
ra.

Txandaka

Konstituzioa



Nekane San Miguel *

Joan zen asteburuan, azaroaren 24 eta 25ean, Granadan, Emakume Abokatuen III. Ihardunaldiak egin dira. Aurrenekoak, 1987an Bartzelonan egin ziren eta iaz Donostian.

Oraingo hauek gai zehatz baten inguruan mugitu dira: konstituzioa. Espainiako arautegiaren zati asko eta asko 1978 urtea baino lehenagoak dira, eta teoriak behintzat, zuzenbideko Estatu baten arau guztiak Lege Nagusi horren arabera, formulatu eta aplikatu behar dira.

Arautegiak arlo dexente dituelarik, honako aldeok ikutu dira ihardunaldietan: epaitegi konstituzionalak sexuen arteko berdintasuna nola aplikatzen duen eta benetan tristurak gainezka egin zigun, milako 0,25 erabakietan bakarrik onartu dela oinarri hori. Lan oso dokumentatu eta zehatza aurkeztu zuten honi buruz Granadako taldekoak.

Bilboko Emakume abokatuen taldeak lanean ematen den diskriminazioaz aurkeztu zuen lana: bai arautegian, baina batez ere, sententzia eta erabakietan: azpimarragarria zera izan zen: EEEko aholkuak ez direla aplikatzen hemen, nahiz eta derrigorrezkoak izan, langile estatutu eta beste arauen arabera.

Haziendak ere diskriminazioa praktikatzen du: hainbat buelta eman behar zaio aitortpenari umeak zure kargu badituzu, eta %90 emakume edo amek duenez haurren ardura eta hauen pixu ekonomikoak guk eramaten dugunez, horri buruzko erregulazioa ere aldatu beharra legokeela ikusi zen, konstituzioa eskuan harturik.

Haurrei buruz ezer aipatu ez dudanez, hurrengoan honi lotuko natzaio, zeren gai hau ere guk tratatzen dugu eta: kode zibilarren 159. arauaren inkonstituzionaltasuna ere aipatu zen. Baina ez bai gogor eta luze baten ondoren ezin zen erabaki bakar bat edo gomendio bat hartu eta hurrengo ihar-

dunaldietan beste ikuspegi batetik aztertzea pentsatu genuen: konstituzioaren oinarriak bai, baina haurren ikuspegitik. Ikuspegi hau zehatz dezagun: kode zibil gehiena umea familian kokatuta arautzen da oraindik eta neurri handian gainera, baina haurra bera zuzenbideko subjektutzat tratatu beharko litza-teke eta familia barruan edo eta kanpoan lagundu eta ba-

bestu (nahiz eta hitz honi buruzko eztabaida gogorra egon, babesak esan nahi duenarekin...)

Dena den, ez bai gogorrena, luzeena... beste gai honi buruz planteatu zen: Leongo emakume abokatuek konstituzioa hartu eta familiaren tratamendu osoa inkonstituzionala ote zen galdetu eta landu zuten. Zer dela eta? Hauen planteamendua oso labur (honek duen eragozpen eta arazoekin begira ezazue) hauxe zen: familia egitura ekonomiko bat izan zela eta egitura horren inguruan ia kode zibil osoa arautu zela. Gaur egun beste harreman batzuk familia harremanak bezain garrantzitsu eta ugariak direla eta pertsona bakarrik izan behar duela subjektua, pertsona bakoitzak bere harremanak inongo mugapen eta trabarik gabe antolatu beharko lituzkeela. Hemengo ezbaia oso tekniko izan zen eta zaila da zati txiki honetan azaltzea. Interesgarria baderitzozue, beste batean azal daiteke. Dena den, lehengo gaiarekin oso loturik zihoanez, biak bakarrik hurrengo ihardunaldietarako orduan ezezik urtean zehar ere sakontzea erabaki zen.

Bi egun, oso sakon eta ordu gutxiegi, nahiz eta ozta-ozta Alhambra ikusi. Euskal lerritik hamahiru joan ginen: Bat Iruñetik, bat Gasteiztik, Donostiatik bost eta sei Bilbotik. Gipuzkoan horien artean, hau izenpetzen duena, Arrasatetik bakarra. Estatutik ehun eta berrogeitamar emakume abokatu inguru "berdintasunaren" bila Euskadik ezetz esan zion konstituzio honekin lanean.

(*) Abokatua

Landaluzer urdaitegia

Espezialitateak:

Urdaiazpikoa
Iberikoa
Ahate-gaiak

Foie
Confit
Bloc

Serranoa
Paletilla
JATETXETARAKO SALMENTA

Iturriotz kalea 7, Tfnoa: 79 14 86 ARRASATE



Gogor ari dira Argiakoak hain beharrezkoa den Euskal egunkariaren bila. Horretarako ekintza ugari prestatu zituzten pasa den astean, egitasmoa azaroaren 26an borobildu zutelarik "Argia Eguna" ospatuz.

Izen propioak

■ Iban Arana, 32, bedoñarra da Arrasateko Udal Biltegizain berria. Ibanek Maisutza Industrialia ikasi zuen EPPn eta Erdi euskaltegian euskara irakatsi zuen bost urtez. Orain Magisterio ari da ikasten, 2. kurtsua, eta AEDko Eskolaz kanpo-ko ekintzen arduraduna dugu.

■ Andres Zabala, 40, Ofatiko Txantxiku Ikastolako lehendakari berria. EPPn Ofizialia eta Maisutza ikasten aritu ondoren, pare bat urtez *Cuchareran* egin zuen lan. Gaur egun Ulmako pertsonal sailean dihardu lanean. Ikastolan Lurdes Idoiaga ordezkatu du.

■ Jose Antonio Aperribai, 44, bergararral, 235 landare desberdinen erakusketa prestatu du Bergarako Errotalde kultur etxean. Maisu industrialia dugu, Bergaran ikasia. S, Prudentzioko *Tavesako* mantenu burua dugu gaur egun. Mendizale amorratua, bederatzi urte darama landareak biltzen eta sailkatzen.

■ Mari Jose Altube, 25, ofatiarra izango da aurrerantzean Mondragoeko korrespontsala "Egin" egunkarian, Lorea Zeziaga eta Juan Luis Azkarate ordezkatzuz. Mari Josek Leioan ikasi zuen kazetaritza. Orain arte Ofatiko korrespontsala izan da egunkari berean.

1956an Fagorrek petrolioeko berogailuak egiten zituen.

Kolore berdea zuten eta usain gogorra zerien. Gogoratzen?

Gaur, ostera, 34 aktibitate desberdinetan erabiltzen du sortu duen teknologia. Robot hozpera litzateke horren adierazle, Fagorrek Estatu mailako aldizkarietan zabaldu duen iragarki honetan.



Epelde


Jende gutxi ezkontzen da astelehenez, baina horixe egin zuten Jose Arana eta Josebe Muruamendiaratz gazte ausartek uztailearen 31n, La Mercedeko elizan. Zorionak!

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



PEÑACOBBA
Auto-Eskola


Zarugalde, 46
79 14 01

ARRASATE

Ameriketako kontuak

Abentura bidaia bateko une on eta txarrak

Damaso Gallastegik, 32 urteko irakaslea, abentura zale eta natura zale amorratua mendi ugari igo eta hainbat bidaia egin du. Mendiei dagokienez, Naranco de Bulnes-a eskalatu du mendebaldeko alderditik, zailenetik; baina horrez gain, Mont-Blanca eta Alpeetako hainbat mendi, Pirinioak alderik alde eta Afrikako Kilimanjaroa ere igo ditu. Bidaietan, berriz, Afrikako desertuetako bero galdetatik Siberiako lurralde izoztuetarainokoak igaroak ditu. Asian, Nepal aldean eta Ameriketan ere, Brasil eta Argentinan ere ibilia da. Abentura zale honek, une egokia zela ikusiz ikastolan eszedentzia eskatu eta Ameriketan zehar bidaia egitea erabaki du aurten. Baina abiatu aurretik, bere une gozo eta gaziak kontatuz, Arrasate Press-era idazteko eskatu genion eta hemen dituzue guretzat "esklusiban" bidali dituen "Ameriketako kontuak"



Damaso Gallastegi

Urriak 20

Puerto Piramides-en

Leerro hauek Puerto Piramides-etik bidaltzen dizki zuet, beharbada Peninsula de Valdes bezala ezagunagoa. Leku zoragarria benetan. Urtero, udara australaren hasiera arte, uztailetik azarora arte hain zuzen, balea australa, itsas otso eta elefanteak, pinguineak... betetzen dute eskualdea. Atera kontuak, duela hamar minutu etorri naiz hondartzatik eta zazpi balea jolasean ikusi ditut, bizkar gainetik ur jarioka, murgilduta buztanak erakusten, urgainean saltoka... txundigarria benetan. Guzti hau, ni nengoen lekutik 100 metrotara.

Atzoko egunez, beste zenbait begiralerekin txalupa hartu eta itsasaldera jo genuen. Ordubete luze eman genuen 18 metroko balea eme bati eta bere balenumeari jarraika. Bikotea zenbait unetan, metro batera hurbildu zitzaigun, txalupa azpitik pasa... monstroa hain gertu... hotz ikarak sortzen zizkidan.

Atzokoan bertan baina arratsaldez, beste ikuskizun bat ikusi ahal izan nuen. Hondartzan geunden itsas otsoei begira eta orka batek ia itsas ertzeraino salto eginez, han zegoen otsoari buztan zatia kendu zion, nahiz eta ihes egitea lortu zuen.

Herria oso txikia da, baina han ere euskaldunen az-tarnak aurkitu ditut. Euskal Herritik hona etorritako baten ondorengoena den *Vasconia* hotelean hartu dut ostatu. Oso ondo hartu naute, sukaldea erabiltzen ere uzten didate. Edonola ere, gustora egote honek disgusto ederra eré ekarri dit. Brasiletik Argentinarako bidean brasileiro bat ezagutu nuen. Berak zioenez, naturazalea izanik, hona oporretan zetorren. Tipoak arraro samarra zirudien arren, bazuen konfidantza ematen zuen zerbait. Hamabi egunez elkarrekin ibili ginen Buenos Aires, Mar de Plata, Bahia Blanca etab. bisititzen. Etxe honetara heldu arte ohizko arretaz ibili nintzen, diru eta dokumentuak hoteletako gerentzian utzi eta horrelakoak. Baina hemen hain gustora nengoen fidatu eta zuhertasunak eskatzen dituen oinarrizko neurriak ere ez nituen hartu.

Beno ba, dagoeneko susmatuko zenuten gertatutakoa. Diru eta gauza guztiak gelan utziak nituen "konpainero" ezezagun baten esku eta hondartzara abiatu nintzen egun batean, "konpainero", diru, travel txeke etab.ak desagertuta zeuden.


Lapurra atzemanda *Urriak 21*

Tipoak ezuste ederra eman zidan, dolarrak aldatzeko lekurik ez zegoen herri batean, etxetik 15.000 km.tara... Zorionez nahiko ondo erreakzionatu nuen. Denuntzia jarri ondoren, "Konpaineroa" herrian ez zegoela eta autobusez ez zuela alde egin ikusirik, auto-stopez alde egin zuela konturatu ginen. Hegoalderantz Panpa eta Tierra de Fuego bakarrik daudenez, polizia federala, Iparraldeko bidea, Buenos Aires-era doana, aztertzen hasi zen. Non egon zitekeen kalkulatu eta egun berean, errepideko kontrol batean, goizaldeko bostetan, harrapatu zuten brasileiroa. Berria jakin nuenean, munda berrfro ere koloreetan ikusi nuen.

Dena dela, auzia ez da hor bukatzen, lapurra Rio Negroko estaduan atxilotu zutenez eta nire denuntzia Chobut-en jarria dagonez, estradizio auzia 15 egunez luzatuko dela adierazi didate.

Edozein modutan ere, datorren astelehenean burutuko da epaia eta auzia hor bukatzea espero dut.

Ahaztua nuen Amazonas inguruan egindako ibilaldien berri ematea. Ez da esperientzia txundigarria izan. Interesa badu, baina besterik gabe. Iquitos-etik aurrera ez



Damasok egindako bidaiia luzea

nuen inolako arazorik izan eta gogorrena kontatzekotan hango klima aipatu behar.

Denok erdi gustora

Urriak 29

Gaur goizean izan dugu epaia. Lehenbizi brasileiroak egin du aitorten eta ondoren nik. Burutik pasa zait arazoren bat suerta zitekeela eta tate! Brasileiroaren eta nire aitortenak ez datoz bat. Tipoak travelak eta nituen pta.k nik eman nizkiola aitortu du eta dolarrez ez dakiela ezer. Momentu hartantxe ez zengoen gelan, idatziz deklaratu du eta, baina akatu egingo nukeen.

Aitorten biak irakurri aurretik, poliziek "konpaineroa" eraman dute epailearen aurrera, zeharo beldurturik, dardarka, espasmoka... pena eman dit. Poliziak hemen inguruan asko jotzen omen du. Egoera ikusirik, ez dut denuntzia azken ondorioetaraino eramaterik

pentsatu eta kareoa egin dugunean nire aitortenari egokipen fin batzuk egin dizkiot, berari zalantzaren onura eman diezaioten eta aske utzi.

Bera arratsaldean askatzekotan geratu dira eta nik Buenos Aires-era joan dadin 10 \$ eman behar izan dizkiot. Niri travelak, pta.ak eta dolarren erdia bueltatzeko tramiteak egiten ari zirenean, oinaztargi baten eraginez argia joan egin da. Idazmakina elektrikoa zenez, bihar ko utzi behar izan ditugu tramiteok. Falta diren dolarrak poliziak dituela uste dut baina tira...

Lasaitzeko hondartzara joatea pentsatu dut ea balearik ikusten dudan, baina gaur hori ere ez, ez dira baleak inondik ageri.

PUB HAIZEA



ERAÑA
AHOLKULARITZA
OROTARAKO
ASEGURUAK

Kontzesiño kalea 4, behea
Tfnoa: 79 83 95 ARRASATE

Larunbata abenduak 2 ANTZERKIA

“LOS FUNCIONARIOS”

(Brigada específica)

Gasteizko nazioarteko jaialdiak koproduzitua

Amaia antzokian

Gaukeko 10,30etan

Sarrera: 200 pta.

Udaleko Kultura Batzordea

Abenduak 15, ostirala

Benito Letxundiren

KANTALDIA

Amaia antzokian

Gaukeko 10,30etan

Sarrera: 500 pta.

Udaleko Kultura Batzordea



“Mikroklima oso zigortu dugu”

Pello Zabala, goizero eguraldia iragartzen digun gizona

Pello Zabala, Euskadi Irratiko eguraldi gizona dugu. Aspaldi honetan eguraldia zoro samar dabilela eta, denon ahotan dago gai hau eta gaurkoan guk ere, gizon honekin gai honi buruz hitz egin nahi izan dugu. Hizkera bero eta alaiko gizona Arantzazun fraile dago eta berak azaltzen duen bezala ia kasualidadez sartu zen honetan.

— Arrasate Press: Pello, nondik nora sartu zinen lan honetan?

— Arantzazun betidanik egon da plubiometroa eta hemen jasotako datuak Donostiara bidaltzen genituen. Seminarioa egin zenean, gutariko fraile batek, hori indartu beharra zegoela eta obserbatorioa jarri zuen teila-tuan. Donostiakoek interes handia zuten honetan, altura handian dago eta, 770m.tan hain zuzen. Horrela bada indartzen hasi ginenean eta Donostiatic aparailu gehiago ekarri zizkigutenean, nire aurrekoa hil egin zen eta nik hartu nuen obserbatorioaren ardura.

— Zure eritziz zergatik hitz egiten da orain horrenbeste eguraldiaz?


— Beno, eguraldiaz betidanik hitz egin izan da, baina hedatze horretan komunikabideek garrantzi handia izan dute. Gaur egun aldizkari, irrati eta telebista kanal guztietan agertzen dira eguraldiaren iragarpenak. Franco bizi zen garaian meteorologia kontua militarren esku zegoen eta hauek meteorologia hedatzeko ez zuten inolako interesik. Beste gai askotan bezala herrialde askoren atzetik joan gara honetan. Fraco hil ondoren, meteorologiari eskainitako aurrekontua ere indartu zen eta gaia indartu eta hedatu zen.

— Gaur egun egiten diren iragarpenak fidagarriak al dira?

— Bai, epe laburrera egiten diren iragarpenak fidagarriak direlakoan nago. Meteorosatel-ek bidalitako irudiek eta batez ere oraindik oso garatua ez dagoen Radar-meteorologikoari esker egun batetik besterako iragarpenak fidagarriak dira. Bi edo hiru egunetara egiten direnak agian ez hainbeste, haizeak eta, norabidez alda daitezkeelako.

— Eguraldia iragartzeko orduan nahiko al da teknika ondo jakitea edo baserritarren jakituria jakitea komenigarria litzateke?

— Hurrengo eguneko edo behin behineko iragarpenetan baserritarren kontuak



Pello Zabala

Azkenengo tenporetan hegoa geratu zen eta azken boladan hegoa nagusitu da, baina tenporek baserritarrari ez diote balio hurrengo eguneko iragarpenak egiteko.

Biak lagungarri gisa erabil daitezkeela uste dut. Nik baserritarren kontuak atsegin ditut eta adibide hutsa da, baina Usabiagak dagoeneko birritan iragarri du mendebala etorriko zaigula, nik nire artean tenporetan hegoa geratu zela eta eguraldia ez zela aldatuko pentsatu nuen eta halaxe gertatu da.

auri azidoa edota negutegi efektua deritzana. Horiak zer edo zer eragiten dute eguraldian.

Nik uste mikroklima, hau da, leku txiki-txiki klima, dela oso kastigatu duguna. Hiri handietan Gasteizen edota Bilbon, bero ikaragarria sortzen da. Milaka kotxe tubo de escape-tatik zaborra botatzen dute airera eta horrez gain, lantegietako tximiniak ditugu. Zikinkeria guzti hori lehen basoek, neurri batean behintzat, garbitzen zuten, gaur egun baso asko galdu egin dira.

Lurrari bestalde piskanaka-piskanaka metro ugari kendu dizkiogu eta lehen lurra zena gaur egun teilatu edo errepede... dugu. Era horretan lurrari bustitzeko, freskatzeko, gozatzeko aukera kendu diogu eta urak erre-kara doaz zuzenean. Basoetan pinu landaketak izan dezakeen eragina ere nik ez dakit neurtu den. Guzti horiek bilduz gero, nik uste Euskal Herrian bertan egoera nahikotxo nahastu dugula eta horrek eguraldiarengan nolabaiteko eragina izango duela.

“Lurrari bustitzeko, freskatzeko aukera kendu diogu eta urak erre-kara doaz zuzenean”

ez dira lagungarri gertatuko teknikoarentzat. Baserritarra animalia, hegazti etab.en bidez baliatzen da eta animalia urduri eguraldi aldaketa datorrelako jar daiteke, baina baita beste arrazoi batzuk direla ere. Teknikoek, dituzten baliabideez nahiko dute.

Baserritarra tenporez baliatu izan da gehienbat eta egia esan, asmatzen dute.

— Gizonak naturari egin dizkion aldaketa guztiek ez dute eguraldiarengan eraginik?

— Tamalez, nik uste badutela. Gauza ugari dago. Gaur egun ozono geruzan suertatu den zuloak oso kezkatzen gaitu, baina beste faktore ugari izan beharko genituzke kontutan, hala nola



Pasa den denboraldiko jokalariek

Aupa Pedrusko

San Andresekoak, Arabako preferentean erdikaldean

Aurtengo denboraldiaren hasieran aldaketa ugari jasan zituzten Pedrusko taldean. Besteak beste, honako jokalariek hauek heldu ziren ekipora: Aitor, Xabi, Willie, Zeziaga, Vivar eta Uribarren atezaina. Entrenatzaile lanetan ere debuta egin zuen Ramon Luengok, eta gaur egun Terik eta berak daramate taldearen ardura.

Aipaturiko aldaketa horiengatik edo, kontua da Pedrusko denboraldi arraro xamarra egiten ari dela.

Etxean partidu bakarra irabazi dute, Huracan-en aurka (3-2). Hirutan berdinketaz amaitu, Alegria (0-0), Izarra (2-2) eta San Viator (1-1) taldeen aurka. Egurra Aranakok eman zion (3-5).

Kanpoan jokaturako neurketetan, berriz, zertxobait hobetu dituzte

gauzak. Alaves (2-0) eta Ariznabarra (4-1) nagusitu egin bazitzaizkion ere, Zaramaga (1-1) eta At. Alavesekin (2-2) enpatea lortu zuen. Lantaron (1-4) eta Aranbizkarrari (2-5), ostera, kriston errepasoa!

Horrela, San Andresekoak sailkapenean erdikaldean aurkitzen ditugu, 11 puntu eta positibo batez. Gauza kuriozkoa, 22 gol sartu baina beste 22 egin dizkiote. Erregularrak benetan. Goleatzaile onena Lazaro dugu, sei txitxarroz.

Taldeak mailaz igotzea lortuko balu, polita litzateke Pedrusko eta Mondraren arteko derbya ikustea. Momentuz behintzat, asmo hori betetzeko gogor ari dira entrenatzen astelehen, asteazken eta ostiraletan (nahiz eta kiroldegiko instalazio urriak erabili behar).

Mondrak irabazi

Makina bat ihardunaldi jokatu behar izan ditu gure taldeak, Atxabalpen lehenengo garaipena lortzeko. Zumaiakoren aurkako neurketan gertatu zen hori, igandean, Mondra 3-1eko emaitzaz nagusitu zelarik.

20. minutuan aurreratu ziren gure mutilak, Ikerrek Arrotxari baloia eman eta honek gola sartu zuenean. Zumaiakok enpatea lortu, baina 47. minutuan berriz Arrotxak, buruz, 2-1a jarri zuen. Hortik aurrera joku polita, lasaia. 72. minutuan etorri zen azken gola, Aranburuzabalaren jokaldi ikusgarri baten ondoren.

Etxeke lehenengo garaipena honako hamaikako honek lortu zuen: Txutxin, Josean, Urbina, Garro, Maturana, Luzio, Elizaran, Julian, Arrotxa, Iker eta Aranburuzabala (Bigarren zatian Suso eta Fede irten ziren).

Bi puntu hauekin Mondra sailkapeneko hamaseigarren postuan aurkitzen da, hamar puntu eta lau negatiboz. Datorren igandean Hernanira joan beharko dira gure mutilak, eta badirudi momentu aproposa izan daitekeela gauza politak egiten hasteko.

Ea ba, 2. maila zai daukagu eta!



TOYOTA

Galarza
Automobilak

Ibargarai 37, Tfnoa: 76 50 99 BERGARA

podiuma

Txus Martin, Patagoniara bidaia egitekotan

Patagonia Argentinan dago, eta Txus Martin arrasatearra bertara bidaiatzekotan dago, Iñaki San Vicente durangarraren laguntzaz. Biak ere hainbeste maite duten mendia dastatzera, gozatzera.

Urtarrilean irteko asmoa omen dute. "Iñakik bost hilabete eman zituen Patagonian; hemen negua denean han uda, eta horrexegatik datorren urtearen hasieran joango gara, bertan denbora ona izateko".

Erabaki ere erabaki dute dagoeneko zein mendi erasoko duten. "Iñaki egon zenean, hunkituta gelditu zen "Cerro Torre" izeneko punta batekin. Ikaragarria omen da eskalatzeko, eta erronka polita izango dela pensatu genuen".

Erronka polita, bai, eta etsai handia aurkituko dute han, "haizea, batzutan 200km.koa izatera heltzen da eta asko sufriarazten dio mendian gora dabilenari. Horrez gain izotz plakak, eta edozein eskaladak berez dituen zailtasunak ere kontutan izan behar".

Txus eta Iñakik zailtasunen bat aurkitu izan badute bidaia honen antolaketan, diru-laguntzak aipatu behar. Bidaiak, bazkariak... "Guztira 900.000 pia.ko aurrekontua edukiko dugu. Nola lortu diru hori? Horretan gabiltza. Aukeari eta Arrasateko Udalari eskatu diegu zerbait, diapositiba emanaldietara hurbiltzen direnei, eta kamiseta batzuk ere atera ditugu jendeari saldu asmoz. Ikusi



Txus esperienzi berrien bila

egin behar!".

Bai Txus eta bai Iñaki langabezia daude. "Alde batetik txarra da, diru aldetik nahiko makal gaudelako biok; baina zera, askatasuna ere ematen digu hara joan eta hilabete batzuk pasatzeko, hemen ez bait dugu inolako obligaziorik utziko".

Gustora dago Txus bi pertsona besterik ez direlako joango, "ondo, eskaladak konpenetrazioa eskatzen duelako, eta ikuspegi horretatik hartuta, jende asko joatea arriskutsua izango litzateke".

Erabaki gabe dute oraindik ere zenbat denbora emango duten han. "Ez dakigu, dena Cerro Torre eskalatzeko ematen dugun denboraren arauera egongo da; baina asmoak behintzat, bide berri bat zabaldu, beste gailurren baten saiatu, eta Glaziare baten zazpi eguneko zeharbide bat ere egitea".

Tira, heltzen ari zaie garaia Txus eta Iñakiri aspalditik prestatzen ari diren bidaia egiteko. Mendizaleak aurrera, goazen mendi gailurrer...

Jubenilek enpate

Ohorezko mailako jubenilek husnako berdinketa lortu zuten Oiarzunen jokaturako neurketan. Honenbestez lehenengo postuan jarraitzen dute, Easo eta Santo Tomas Lizeoko taldeekin batera.

Rugbyan galdu

Neurketa zaila zuten gure jokalariek larunbatean, Getxoko talde indartsuaren aurka. Amaieran 28-14 nagusitu ziren bizkaitarrak, baina tira, ez dago hain gaizki.

Saskibaloikoek ezin.

Zortzigarren ihardunaldian porrot berria jaso zuten Arrasate Kirolakekoek (dagoeneko zazpigarrena da), Deustuko La Sallek 102-79ko emaitzaz gainditu bait zituen. Larunbatean, Muebles Martin liderra Musakolan. Animo!

Okendo Kirolak makaltxo

Ez dabilta fin neskak aurtengo denboraldian. Pasa den asteburuan ere 6-0 galdu zuten Urretxuko taldearen aurka, eta sailkapeneko azkenurreko postuan segitzen dute, hiru puntu eta bederatzita negatiboz.

Eskubaloian ederto

Ipuruan Arrateren aurka jolastu, eta 12-21 irabazi zuten gure mutilek. Zorionak, denboraldi benetan apartekoa egiten ari bait dira.


Denborapasen soluzioak

Aritgrama

$$[(3+1) : 2+6] \times 5+9 : 7 = 7$$

Hiztegia lantzen

Atondu= b) Nor bere burua edo beste zerbait txukundu edota zerbaitetarako prestatu, prest utzi.



OKENDO

KIROLAK

Iritsi da OKENDO KIROLAKera udazken-neuruko moda!

Maalako errabala 13, Tinoa: 79 92 76 ARRASATE

Telebistaren eragina


Telebistaren eragina aztertzea oso eginkizun zaila, sakona eta zabal da. Horregatik, gai hau aztertzeko 'daliagarriak izan daitezkeen erizpide batzuk eskaintzea da gure helburua.

Telebistak neurri batean haurra bera aldatu egin duela azpimarratu nahi dugu: Telebistak haurren eragin positibitateak zabaldu egin ditu alde batetik eta bestetik komunikaziorako bideak itxi egin ditu.

Inork ez du ukatzen Telebistaren eragin positiboa eta haurren mundua zabaltzeko dituen posibilitateak:

- Sormena zabalduz
- Mundua ezagutzeko datu ugari eta biziak jasotzeko aukera emanez.
- Herriaren munduaren ezagupena aurreratuz.

Eragin positibo hauei kontra-jarriz Telebistaren eragin negatiboak aipatu behar ditugu:



- Pasibitatea
- Elkartrukatze edo interakzio gabeko munduaren ezagupena.
- Hainbat balore negatibo on bezala jasotzea:
- Biolentzia, kontsumismoa, matxismoa...

Guraso eta hezitzaileok ditugun arazoak konpontzeko ez da nahiko arazo hauen kontzientzia edukitzea. Batetik ez dagoelako aukerarik telebistan ematen dena aldatzeko eta bestetik egokia ez delako telebista-

ren kontrako borroka pertsonal bat aurrera eramatea.

Gure aukera bakarra, eta ez da txikia, telebistak dituen elementu positiboak bideratzean datza. Hona hemen hori lortzeko guretzat garrantzitsuak diren prozedura batzuk:

- Telebistaren aurreran selektiboa izaten erakustea:

Telebista piztu aurretik programak aukeratu.

Egunkaria kontsultatu

Aukera guztien artean ordutegi mugatu bat finkatu.

Telebistaren aurrean interakzioa probokatzeko:

Telebistak eskaintzen dituen gaien inguruan informazioa zabaldu, eztabaida sortu, hau da, komunikazioa sakondu.

Telebistak eskaintzen dituen gaien inguruan jarrera konkretu batzuk bultzatu.

Klarion taldea

a.eme.interiores

GARIBAI 9
20 500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tlfnoa: 943-791503
Telefax: 791489

barrukaldeko arkitektura
etxeko ekipamendu osoa
merkatal lokalen instalazioa

ARKITEKTO TEKNIKOA ETA APAINZAILE TITULATUAK DAUZKAGU

Mikel Laboa 12, Ai ene!

*Mikel Laboa. "12".
Elkar argitaletxea.*

Behin batean bazen urrutiko erresuma hartan mutil gazte bat Atahualpa Yupankiren musika oso maitea zuena. Bartzelonara mediku ikastera joan zenean bertako "Nova Cancó"ren mugimendua ezagutu eta euskal kanta berriaren bultzatzaile bihurtu zena. Euskaldun fededun eta lege zahar zaleen eskandalurako kantaldiaren erdian fie-fie edo zai-zoi-zoifíe esaka eta oihuka has zitekeena, kitarra elektrikoa jotzen zuen tipo estrafalario bat lagun zuelarik. Denbora kronologikoaren arabera euskal kantarien patriarka bilakatu zen arren, belaualdi berriekin konektatzeko ahalmenik handiena erakutsi zuena. Euskal kanta tradizionalak jaso eta moldatzeaz gain, puntako poeta

gazteen poemekin kanta zoragarriak egiteko gai azaldu zena. Eta beti ere musika-molde eta espresio bide berriak esperimentatzeko zaletasunari eutsi ziona.

Guzti hori zela medio, mutil gazte Yupanki-zale hura euskal musikaren sasi guztien gainetik zegoen kantari bitxi bilakatu zen. Tarteka ematen zituen kantaldiak arrakastatsuak izaten ziren eta marteka kaleratzen zituen diskoek ere harrera ona jasotzen zuten. Eta gauzek horretan irauten zuten, 12 izeneko disko hura iritsi zen arte.

Egia esan, diskoa ohizko bideetatik zihoan, apartekorik gabe. Arizkunen jasotako kantu zahar bat, lehen grabatutako kantu baten bertsio berria, instrumental pare bat, bi kanta berri hunkigarriak eta ohizko lekeitiokeriak. Agian zenbait momentuta-

ko jazz kutsu hura izango zen, edo lekeitioak landuagoak ziruditelako, edo tronpeta hura, edo lilia hostoz-hosto biluztearen ederra, edo a, e, i, aieneka egindako Atxagaren galderak... Auskalo. Kontua da tantoka bateko lapikoak noizbaiten gainezka egiten duen bezala, 12 izeneko disko harekin erresumako biztanleen sentsibilitatea ase egin zela, bete. Eta herri hain txikia izanik Laboa bezalako artista handia edukitzea sekulako luxua zela ohartu zirenean, denek mirestu zuten kantaria eta beraren musika gozatu. Eta handik aurrera zoriontsuago izan ziren.

Eta hau oraingoan ere egia ez bazan, sar gaitezela denok ondo merezia izango dugun kalabazan.

Mikel Irizar

amuebladora



mondragonesa

**Zabalik gaude!!
Erakusketa berria
Santamainan**

*Diru asko ala gutxi,
ez ondotik pasa,
ez begiak itxi.
Sartu, ikusi...
eta komeni bazaizu erosi*

Santamaina kalea 36, Tfnoa: 79 92 62 Fax: 791489 ARRASATE

Umorea

Dударик gabe guztioi atsegin zaigu farre egitea.

Gaur egungo bertsolaritzaren elementurik garrantzitsuenetakoa da umorea, beste garai batzuetan berriematea eta politika izan den bezala. Bi gai hauek zahartuak gelditu dira edo jendea aspertu dute. Normala da denborak aldatzen diren heinean bertsolaritzak ikutzen di-tuen gaiak ere aldatzea.

Azken aldiko umoreari begira jarrita, jendearengandik oso harrera ona jaso duela esan behar da, ez da zaila gertatzen jendeari "konplikatuak" diren gaiekin farre eragin, nahiz eta askotan bertsolariak pentsatzen ez duena esan. Azken txapelketako polemika aidean dago: zein da bertsolariaren papera? Farre eragin ala bere eritzi bat ematea? Egia esan zailagoa da norberaren eritzia azaltzea, batez ere horretarako aukera ematen duen gairik ia ez badago.



Beharbada irtenbidea eritziaren eta umorearen arteko konbinazioa egitea da. Umorea bakarrik erabiliz gero, bertsolaritza zaharkituta gelditzeko arriskua dago oso entzulego konkretu batera mugatuz. Gaiak gaur egunekoak edo errealak izaten ez badira eritzi ezberdinetako bertsolariak ez dira eritzi ezberdinetako publikoarekin komunikatuko. Edo-

zein modutan, txapelketa honetan nahiko aurrean dauden bertsolari gazteetako batzuk bide onetik doazela uste dut. Ea bada horrela jarraitzen duten. Eta gaiak aldatu!!

Dударик gabe guztioi gustatzen zaigu ta.


Danel Goikolea

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 89

FINALERDIAK

GERNIKAN

Abenduaren 3an, igandea
"Santanape" frontoian



- | | |
|-------------------|-------------------------------|
| Goizeko 11,30etan | Arratsaldeko 5etan |
| Andoni EGAÑA | Iñaki MURUA |
| Jon ENBEITIA | Jon SARASUA |
| Imanol LAZKANO | Mikel MENDIZABAL |
| "EUSKITZE" | Millan TELLERIA |
| Jokin SOROZABAL | Juan M ^a AREITIO |
| Luis OTAMENDI | "MAÑUKORTA" |
| Nikolas ZENDOIA | "LOIDISALETXE II" |
| Angel LARRAÑAGA | Jose M ^a LERTXUNDI |

Lagunak Oro Lagun Aron



Enpresakoak

Ondasunetakoak

Pertsonalak

Nekazaritzakoak

Lagun Aro Aseguruetan gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailea hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiari zerbitzu onena emateko asmoz.

Lagun Aron poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.

Lagun Aro Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzen duen Europako Kooperatiba Aseguruen Elkartearen partaidea bezala.

LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK

Lan Kide Aurrezkoa Taldekoa



HIRU S. A. MEKANIZAZIOAK

- * *Doltasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera*
- * *Fresatzeko makinak*
- * *Zenbakizko kontrola*
- * *Mekanizazio-zentroak*
- * *Tornuak*
- * *Artezko makinak, etab.*

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61 Posta kutxa 95. Telefax: 798097

ITURRIOTZ TABERNA

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



E D E L TAPIZTEGIA

*Gortina
Alfonbra
Koltza*

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25
BERGARA



Arrasateko jatetxea

Olarte kantoia 3,
Tfnoa: 79 84 53

ORTZI erretegia

Angiozar Auzoa
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA



URONDO elektrizitatea.

Nafarroa etorbidea, 11 Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak

ARRASATE PRESS

astero zuekin

Ekologia I

Giza komunitate bat osatzen duten pertsonen eta ingurugiro osoaren (natural eta sozial, hiri eta landakoaren) artean dauden erlazioek ekosistemak eratzen dituzte, eta hauek bizitza posible egiten duten bitartean, Giza ekologia dela esan genezake.

Ekosistemak komunitate biziaren eta ingurugiro natural eta sozialaren arteko moldaketa, harremana eta, azken finean, oreka trofikoak dakar. Baina Gizonak zeozer berezirik baldin badu beste izaki biziak konparatuz, natura eta beronen errekursoak suntsitzeko ahalmena da. Hori bai, guzti hau "aurrerapen eta garapenaren" izenean egiten da.

Gero eta gehiago ugaltzen da Gizona gure planeta honetan: egunero 200.000 pertsona jaiotzen dira

munduan eta 2000 urterako zazpi mila milioi izango gara; batetik hori, baina gainera lurra hondatzen ari gara errekurso natural guztiak suntsitzen ditugun bitartean.

Faunak ikaragarriko erasoak jasan ditu, horregatik hainbat animalia mota urritu egin dira, banaka batzuk geratzen direlarik.

Landaretzari dagokionez, ez dira neurri handiak hartzen hau babesteko, nahiz eta gure planetako biziaren iturria eta mantenua izan: oihanak, basoak, leku guztietan gutxituz doaz, nekazal lurrak ez dira ondo tratatzen...

Oihanen desagertze horrek gaitz izugarriak dakartza oreka naturalarentzat. Landaregabetutako lurrak zuhaitzen babesik gabe erosioaren lanarekin hondatzen dira, antzu bi-

hurtzen dira eta ezin dute urik gorde eta ez dira ur hori bideratzeko gauza ere.

Lur, ur eta atmosfera mailan, gizonari esker, pozoinketa handituz doa gero eta gehiago.

Edozein modutako prozesu industrialak, egungo arazoak puntualki gainditu baditu ere (lanpostuak sortuz milioka pertsonarentzat), bide batez, planeta eta bere biztanleen osasuna zulatu du.

Askotan gertatzen da ondasun handienak gastu gutxirekin lortu nahi ditugula eta kasu honetan horrela jokatzeari landare, animalia eta mineralen erreserbak agortzen ari gara, eta ez dugu kontutan hartzen galtzen ari garen ondasun guzti hauek gizateria osoarenak direla.

*Eukeni Olabarrieta
Arantxa Lizaso*

Trapo's

Uribe auzoa 2, Tfnoa: 79 83 38 ARRASATE

I
R
A
T
I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80



Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE

ARRASATE
PRESS

79 71 64

Edurra datorrela eta

Neguan sartzera goaz. Ea hori egia den eguraldi aldetik eta gure mendi, lur eta basoak txuriz jazten diren. Duela 15 egun, merkealdiak egon ziren eta mendi batzuk, bere alturaz baliatuz, edurrak estali zituen. Gutxi iraun zuen euren edertasunak, udazkeneko hegoaizeak erantsi zizkielako haien traje dotoreak. Neguan, mendizaleok aukera daukagu beste erabateko irteerak egiteko, teknika desberdinak erabiltzera edurrak behartzen gaituelako. Teknika desberdinak erabiltzeko asmoarekin zaudeteno i eta horregatik Besaide Mendi elkarteak ikastaroak antolatzen ditu, "tecnicas de invierno" deritzaiena. Aurtengo lehengo edurrak ikusita, Pirineotara abiatu ginen edozein punta egiteko asmoz, edurra zapaltzea eta Pirineoak edurtuta ikusteak ematen dizun sensazio



berezi hura gure gorputzean sentitzeko asmoz. Eraman genuen ekipoa, minimoa gure ustez hango parajetik ibiltzeko, hauxe izan zen:

— Erropa aldetik ondo horniturik. Txamarra, polainak, eskularruak, babesgaia, bufanda, aldatzeko erropak...

— Pioleta. Aitzur txiki baten antzerako tramankulua, edurretan lagungarri den tresna.


— Granpoiak. Izotz plaken

gainean ibiltzeko botei jazten zaizkienak. Bota azpian doaz eta hagin hauei esker gure botak ez dira labantzen.

Kontutan izan behar diren bi gauza aipatu behar dizkizuegu: alde batetik izotzean agertzen diren brintza izkutuak, horretarako lehen aipatutako ikastaro horiek, eta bestetik, neguan izaten diren denbora aldaketak epe txiki batean. Azken hau gertatu zitzaigun ibilaldi honetan. Goiz guztian ibili eta ordu erdi baino gutxiago falta zenean gailurra gainditzeko, gure ahaleginei etsi egin behar izan genien. Ez da brometakoa Pirineoetan lainoazpian nondik nora jo jakin gabe ibiltzea eta. Denboraz eginiko erretirada batek jeneral ona izendatzen omen du.

Hankamotz

AE Elkoro



Zure antena txarto badabil, esaiguzu, konpondu egingo dizugu!

Antena parabolikoak, indibidualak eta kolektiboak konpontzen espezialistak.

Magdalena 27,
Garibai 10,
Alfonso X 6,

Tfnoak: 79 18 86 eta 79 45 99 ARRASATE

Zure erosketak AKOBEN egiten badituzu KOTXE bat irabaz dezakezu



Volkswagem
Polo Coupé GT: 5cv.
autoa

THOMSON
VTS-200 Bideoa
40 aparatu



Notario aurreko ZOZKETA

Akobe



Jose Aranzabal

Elektrogailuak, TB, Bideo
Iturriotz 15, Tfnoa: 79 15 16

KOLTZA - *Jose Aranzabal*

Sukalderako altzariak, Oparigaiak
Bañez doktorea 8, Tfnoa: 79 18 92

KEF **Harman/Kardon** **PANASONIK** **CEC** **Vegas**
QUAD **Clener** **ONKYO** **EGI**
 baile **CASIO** **NAKAMICHI**
Mission **Goodmans** **BASF** **Televes** **Ortela**
HONNER **Polytone** **Rotel**
Zimmerman **LARK**
Fujitsu **Fox**
Cyrus **MORESCHI**
TEAC **JBL** **PHILIPS**
TORQUE **PIONEER**
Hantarex **Alpine** **KELLER** **Ortofon** **JUGGS**
Admira
Tensai **MELOS** **Estrella** **KONIKA** **UHER**
Fonestar **SHINTON**
Otalora kalea Tfnoa 79 29 09 ARRASATE



MUSAKOLA
OSTATUA
Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak
Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50



Gas, gasolio eta
elektrizitatezko berogailu
eta aire girotuko instalazio
elektrikoen diseinua,
muntala eta mantenua
Industrialdea, B-5, ARETXABALETA Tfnoa: 79 03 03 ARRASATE Tfnoa: 79 05 18

LORATEGI
taberna
Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67




Salterain
Ezagutu itzazu P.V.C. ren bitartez gaur
egun eskura daukazun leiho miresga-
rriak, ez hotzik, ez berorik, ez soinurik ...
Gral. Garro, 2 eta Uribarri Etorbidea, 20.
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 99 58

KÖMMERLING
P. C. V.zko LEIHOGINTZA **20.500 ARRASATE**

ETXEBIZITZAK

- Arrasateko erdialdean alokairuan behar dut lehenengo pisu bat edo beste bat igogailuz. Tfnoa: 78 07 46.
- Haurrik gabeko bikote gazteak Arrasaten pisu alokatua behar du. Tfnoa: 79 30 20.
- Uribe auzoan pisua salgai ganbara eta garajeaz. Tfnoa: 79 49 66
- Muntatuta dagoen pixu batean gela hartuko nuke. Jose Manuel Tfnoa: 49 14 53 . Dei egin 8etatik 10etara.
- Errentan hartzeko etxabehea edo merkatal lokal bila gauzak sartzeko. Tfnoa: 79 94 00
- Jantzitako pisuan logela bila. Tfnoa: 49.14.53 (Jose Manuel), gaueko 8etatik 10etara.
- Apartamentua salgai. 2 logela, bainugela, ganbara, sukalde-jangela. Tfnoa: 79 26 95 (6etatik 8etara)
- Pisua salgai Urriburu kalean. Tfnoa: 79 81 79
- Pisua salgai Udalpe kalean. Tfnoa: 983-39 41 90
- Pisua salgai J.L. Iñarra kalean. Tfnoa: 79 20 03
- Pisu berri-berria Erguin kalean salgai. Gas naturala eta ur beroa, egongela, bi bainugela, sukalde ekipatua. Tfnoa: 79 19 96
- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Pisua osatzeko pertsona bila nabil. Interesatuak helbide honetara etorri behar dira: Araba etorbidea 20, 5. esk. 5etatik 6etara (larunbatean ezik)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.

LANA

- Neska arduratsua etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko gertu. Esperientziaduna. Tfnoa: 79 45 92. Arratsaldeko 3etatik 4'30ak bitartean edo 8etatik aurrera deitu.
- Ingeleseko klaseak emateko pertsona behar da, astean 3 edo 4 ordu, goizetan (goizean goiz hobeto) interesatuak deitu 78 07 85 10etatik ordu letara, astegunetan.
- Neska haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu azkar 79 42 69 Tfnoa.
- Ingeleseko irakaslea behar da "Bilboko 3." kurtsoa neska bati emateko. Tfnoa: 79 57 53 (21etatik aurrera)
- Bi haur zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona behar da. Lan orduak:8-18. Tfnoa: 79 79 69 (8etatik aurrera)
- Esperientziadun kamareroa behar baduzu. Tfnoa: 79 75 92
- Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume edo neska behar da. Tfnoa: 79 35 44 (7etatik aurrera)
- Euskara irakaslea behar da O.H.O.ko 6. mailako haurrari euskara klaseak emateko. Interesatuak deitu 79 37 87 tfnora. 7etatik aurrera.
- Asteburu gauetan haurrak zainduko nituzke. Ikaslea. Tfnoa: 79 99 82. 9etatik aurrera. Miren.
- Haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egitiko neska behar da. 79 71 34. Ane.

SALEROSKETAK

- Salgai dituzun pioletak eta granpoiak erosiko nizkizuke. Jabier 79 50 53
- Fagor markako ikuztallua salgai. Ondo dago eta merke salduko nuke. Deitu 7,30etatik aurrera 79 82 47 tfnora.
- R-11 GTL berde metalizatua, SS-T salgai. Tfnoa: 79 94 86
- Solnua -96 baxua. Moreschi markakoa. Tfnoa: 79 52 40
- Prenier bateria salgai, plater eta guzti. Tfnoa: 79 46 86
- Venguri kitarra elektronikoa salgai, 3 Fender pastilaz, Strato Caster eta dagozkion kableak, Anplifikadore bi Doobie sarreraz, Pedal distortsioa MxR, egoera onean dagoen maleta, Jibson korda-joku bat.
- Umeentzako kotxe itsasurdina, Arrue markakoa, prezioa: 15.000 pta. Tfnoa: 79 7742 (10etatik 12etara)
- "Amstrad" jokuak salgai. Denak erdi prezioan eta egoera onean (disketetan eta kasetetan). Deitu 7etatik aurrera 79 49 03 tfnora. Gorka.
- Zure argazki-makinarentzako Panagor markako 200 mm-ko telea salgai. Diametroa 62. Oso merkea. Tfnoa: 79 71 64

DENETARIK

- Larunbatero, Oñatiko Udal Euskartegian EGA ikastaro trinkoa, 4 ordu.

†
ARRASATEN HILDAKOAK

Antonio Vidriales Vacas
87 urte. Azaroaren 21ean.

Manuel Sarabia Palenque
73 urte. 27an

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK
DIAN, TESTUA IDATZI ETA
BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:.....
.....
.....
.....
.....
.....
.....

Arrasate Pasealekua 3 bia, etxabea.
20.500 ARRASATE Tfnoa: 79 71 64

Famauen ahotik

Juanita Mendieta: "Etxerakuen asto karrerak be eitten gittuan, nor lehenau allegauko"



Juanita aurrenengo "Manola" astue kapitana dala

ASTODUNEN AKZIDENTIEK

"...joten dau bete betian kotxe batek eta astua eta bixak sasira, hankaz gora. Kotxedunoi gelditu eta han topau ei zeban andria sasi artian jaiki ezindda eta hola esan ei zotsan honek gizonai: 'Anda con cuidado, e, por poco me matas el burro'".

Mutikotako kontuak (J. M. Elexpuru)

Eskola kontuek

Hamar urte arte ero ibiliko nitzuan eskolan, dotriñie ikesi eta halaran. Eta eskolatik urtendakuen jolas, pote-poteka, kui-kuike...zetan ez! Askotan etxera berandu eta hasarreik ez entzuteko, geuk einddeko afixetan arrautzak gordeta eta handik hartu eta afiketana amana. "Ama, ama oilluei afixie ikesi dutzau" Ama pozik, arrautzak topau gittuela eta.

Zazpi urteaz esne karriuen

Zazpi urteaz hasi nitzuen eta marminttek atara ezindde ibilite be etxeko lanetan baiño gustorau. Astuek Labeko ituan isten gittuan, oin Runba dauen lekuen. Hango Rosa difuntiek lagunketan juztan marminttek ataraten. Bazittuan 3,4 litro hartzen zittuen famelixak, izen be, orduen etxauan oingo moruen okelie eta. Goixien esnie eta gabien esnie zuan ordukuoi. Hasi gitzenien 4 txakur haundi t'erdixen saltzen gaixuan eta oin 5 bat urte inguru itxi gutzenien 90 ptan

Etxerakuen kuadrillan

Etxerakuen kuadrilie juntetan gitzuan, jarri asto gaiftien eta Bedoñera. Batzuetan asto karrerak eitten gittuan, nor lehenau allegauko. Hurrengo trankil be bai, barriketan eifiaz, batek, nik ardaue jakarrenat, bestiek nik tomatie, nik letxugie, nik azukerra. Marmintapan ensaladie preparau eta danok jaten gaixuan handik. Gero beste tapa batera ardaue bota eta batac bestie pasauaz, danok txururatarxue.

Sarri txixeguriek larri egotie be suertetan zuan eta, halakuetan apurbat atzera geratu eta asto gaiftetik eitten gaixuan.

Orduko baserriko lanak

Orduen, baserrixen andran bizimorue gizonena baiño gogorraue zuan. Etxeko lan danak eif biher, pujetie, ituan, soluen... Feixa egune allegetako desietan. Gizonak feixara jueten zittuan eta androk meixendie eitten gaixuan, orduentxe hainbestien txokolatie janaz tertulixan.

Estepan Plazaola eta Jesus Mari Garai

Zelebrequerixak

Plaentziako aberats-berri batek herriko bururik haundia ei zeukan. Haren txapela, kertena ipini ezkeru, guardasoltzat erabili ei zeikian.

— Bene benetako erregezalia, karlistia izanez, behin adarjotzaile batek esaten ei zotsan:

— Hik pe diru asko egingo heban, baiña erregetzarako eztok balio.

— Ze ba?

— Hogerlekoetan hire bururik ezin leikelako kabidu.

Izan be, holako bat errege egingo balebe diru berririk etara ezin.

■ ■ ■ ■ ■

Bartolo eta Joxepa andra-gizonak joan zien notarixuagana herentzia kontun bat konpontzera eta notarixuak preguntau zotsan gizonai:

— Zela dozu izena?

— Bartolo

— Zela Bartolo? Bartolome izango da. Hori da baserriarrok izena mozteko daukazuen manixia!

Ondorian akabera bareko erretoikia sartu zotsen, izenak gaizki jarri ezkeru herentziak etzebala balio, legiekin ezin dala jolasian ibili, ezta kit zer, badakit zer...

Gero andriai preguntau zotsan:

— Eta zure izena?

— Joxepame.

■ ■ ■ ■ ■

Aspalditxo Donostiako obispua etorri ei zan Debara ohizko bisittia eittera eta herriko jauntxuekin ei zeuan bazkaltzen bertako jatetxe dotorienian. Zerbait esan biharraren esan biharrez esaten dotsa parian zeukan medikuai:

— Da, jende asko hiltzen al da herri honetan?

— Hemen danak, jauna, batzuk lenago eta beste batzuk geruago.

Juan Martin Elexpuru

Kabia

Altzariak

Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate, 79 98 94

A


rraro samar gelditu zaigu orri hau, baina argazkiaren ikusgarritasunak merezi zuela uste dugu. Gaurko

Maisu Arano pasealekua eta Biteri etorbidearen zati bat azaltzen zaizkigu. Argazkia 1960 ingurukoa da. Ezkerretara Garibai etxea ikus dezakezue. Garai hartan lehen solairuan udal liburutegia zegoen, "atsoaren txabolaren ondoan" esaten zitzaion ez zekienari, emakume batek askotan etxe aurrean txabola antzerakoa jartzen bait zuen.

Eskuinerago, gaur desagertu den magnoliaren itzalpean taxi geltokia zegoen. Hor dituzue, Mariano harakinaren Seata, Herizen Austina eta Re-Reren Ford distiratsuak.

Eskuin aldean 1902an Pedro Biterik (Arrasate 1833 Miarritze 1908) eraiki zuen Biteri Fundazioa, non Arano maisu ospetsuak ere irakatsi bait zuen. 1943tik 1952ra arte Eskola Profesionala izan genuen hemen eta hortik aurrera Mercedeko monjen eskola.

Erlojua 1952an gelditu zen, hirurak eta hamar seinalatuz. Eskolak 1968ko elurra ari zuen martxoko egun betez bota ziren. Horren lekuan aparkalekuak egin ziren.




EDERRA

Iturriotz kalea, 12

Tfnoa: 79 96 25

ARRASATE

HERRÍ Irratia



Radio POPULAR
G I P U Z K O A

DONOSTIA

Garibai, 19
Tel. 42 36 44
Fax. 42 78 21

O.M. 1.224
F.M. 88'5

LOIOLA

Azpeitia
Tel. 81 44 58
Fax. 81 39 44

F.M. 99'8

Gure leihoa

Irten zara leihora
gaur gauean,
ilargia laztandu duzu.
Egarri zaude leihoan
gaur gauean,
itsasoa edan duzu.
Lurrera begiratzuz leihotik
gaur gauean,
infernua ikusi duzu.

Ene maitea,
zure presentzia gozatu
ahal izan banu.
Egongo bazina maitea
nire leihoan
gaur gauean. Edo besterik gabe
zure leihoa zabalduko bazenu...

Cecile Lemaire



G. M.

BATZOKIA
jatetxea

Eguneroko menua
eta karta

Iturriotz 41, 79 70 41
Arrasate

VE ECUADOR

Kontzeslño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA
IRAKASLEAREKIN

Caribai 3, 79 22 96 ARRASATE

■ **Zer ikusi eta entzuten duten Arrasate Pressen irakurleek?** Lan kide Aurrezkiaren Marketin sailak oraintsu amaitu berri du gure aldizkariari buruzko inkesta. Datu asko irten da hor eta, poliki-poliki, jakin eraziko dizkizuegu sail desberdinetan.

Adibidez, gure harpidedunen %92ak astean behin gutxienez ikusten du ETB1. Irrati zaletasunari dagokionez, hona hemen harpidedunen artean gehien entzuten diren emisorak:

%49ak Loiolako Herri Irratia entzuten du.

%36ak Euskadi Irratia (inkestatzaileek ez dute bereizten Donostiatik euskaraz egiten den Euskadi Irratia eta Bilboko Radio Euskadi erdalduna)

%18ak ez du irratirik entzuten.

Zer esan bestalde, harpidedunon irakurtzeko zaletasunaz? Hauxe: azken urtean %70ak ez du bat ere libururik irakurri euskaraz. %28ak irakurri du zerbait Azken hauen %20ak gogoratu eta aipatu egiten du irakurritako azken liburuaren izenburua.

Ezin esan, bada, gure harpidedunek euskaraz idatzitako liburuak irakurtzeko grina dutenik, baina irakurtzeko hain ohitura eskasa duen jende multzo hau beharbada aldatzen hasi da astiro-astiro, Arrasate Press irakurtzen hasi bait da.

■ **Kalejira:** Poztu nintzen Juan Luis Azkarate gure lankide ohiak sakulako sariak, tartean Citroen AXa, irabazi zituenean. Hori zela eta bi Kalejira saio ikusi nituen eta ez zitzaizkidan gustatu. Hitz eta Pitzen lehenago eta Euskadi Irratian gero hain programa txukunak egin zituen Joseba Agirretxea berba hutsalen itsasoan galdua ikusi nuen. Berba gehiegi egiten du, etengabe, ferietako berritsuen pare eta horrek nekatu egiten nau. Aurkezlea leku desegokian dago kokatuta, lehiakideen atzekaldean, hauek ikusi ezin dutelarik. Honek komunikazio eskasak eragindako keinu eta aurpegi arraroak dakartza. Aspaldiko maixuen antzera atentzioa deitzen ikusi nuen behin baino gehiagotan, "A taldekoak, esku horiek mahai gainean!" En fin.

Zer esan Josebaren ondoan zegoen neska-estatuari buruz? Emakumeen erakundeak kexatu egin dira, nonbait, eta ez zaie arrazoirik falta. Penagarria benetan neska hau ikustea geldi, apaintzeko besterik ez.

Joxe Aranzabal



gusto baduzu

■ **Paradisu kalea:** Sylvester Stallonek zuzendutako filmea, ostiralean, gucko 9etan. Antzesleak Sylvester Stallone, Lee Canalito eta Armand Assante. Carboni anaiak, Infermuko sukaldea izenpean ezagututako New York-eko auzoan diru mordo bilatzen saiatzen dira. Lortzeko bidea gaueko klubetan antolatzen diren borroketan topatuko dute.

■ **Fahrenheit:** Hasier Etxeberriak aurkeztutako programa, larunbatean, arratsaldeko 5,10etan. Kulturaren arlo ezberdinak lantzen dituzten pertsonaiekin elkarrizketak, erreportaiak (Pintura, eskultura, literatura...), etab. aurkezten zaizkigu bertan. Aste honetan, Remigio Mendiburu eskultorearen txanda.

■ **Hitzetik hortzera:** Igandetan, eguerdiko 14,25etan, gogor darrai Joxerra Gartzia aurtengo Bertsolari Txapelketa gureganatzeko. Gogoratu dagoeneko finalerdietara helduak direla, beraz, txapelketako bertso eta momentu ederrenak bizi-tzeko aukeran gaude guztiok.

bideoak



Jazten

Aldizkariarekin batera AEDk hiru bideo jarri ditu dalgai, Txepetxen "Un futuro para nuestro pasado" liburuaren inguruan antolatutako mahai inguru eta hitzaldien berri ematen delarik.

Hiru bideo hauek 5.500 pta. balio dute, VHSn. Nahi izanez gero 158 postakutxara eskatu, Arrasaten.

OSTADAR IRRATIA (102 F.M)

Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)




Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).

Aritgrama

Markatutako puntutik hasita, saia zaitetz emandako kopurua lortzen, horretarako ahalbide hauetaz baliatuz:

- > Aldeetara zein gora eginez, BATU
- > Behera eginez, KENDU
- > Zeharka behera eginez, ZATITU
- > Zeharka gora eginez, BIDERTU

	9		→ 7
	5	7	
6	1	8	
2	3	4	

↑

Hiztegia lantzen

ATONDU=

- a) Arrantzarako itsas-umtziatik sarea bota eta zabaldu.
- b) Nork bere burua edo beste zerbait txukundu edota zerbaitetarako prestatu, prest utzi.
- d) Aurrez buelta emandako lurra txikitu eta berdindu, erein baino lehen.
- e) Zigortu, jo, astindu bat eman.

(Soluzioak: 21. or.)

Mokordo

Horoskopoa



ARIES
Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra

Gehiegi eskatzen diozu zure buruari; honela inoiz ez zara gustora sentituko. Helburu batzuk lortzea ezinezkoa zaizula onartu eta zure esku dagoenari ekin.



LEO
Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra

Espero ez zenuena gertatuko zaizu, benetan zure gustokoa izango dena. Egia esan, holako zerbaiten beharrea zaude galdutako ilusioa berreskuratzeko.



SAGITARIUS
Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Polita izan den abenturari puntu finala jartzea mingarria da beti. Batez, ere amaiera horrek bakarrik geratzea suposatzen badu. Ondo pentsatu.



TAURUS
Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Animatu zaitetz pentsatuta duzuna aurrera eramateko. Orain egiten ez baduzu gero eta zailago irudituko bait litzaizuke. Lehengo pausua eman behar duzu.



VIRGO
Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra

Planeatzen ari zaren bidaia horretan esperientzia berri eta aberasgarriak bizitzeko aukera izango duzu. Zaindu ondo poltsikoa.




CAPRICORN
Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra

Lortu duzuna ez da nahikoa. Oraindik zailena falta zaizu. Ez zaitetz geldirik geratu eta zure buruari proposaturikoa lortu arte, aurrera segi.



GEMINI
Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Zauden egoera zure gustokoa ez bada ere, helburu hori lortzeko ezinbestekoa duzu. Pentsa ezazu denbora gutxi barru giroz aldatuko duzula.



LIBRA
Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Itxaroten ari zarena heltzear dago. Ez zaitetz, bada, gehiegi kezkatu. Momentuz egoera garrantzitsu honetaz gozatzea duzu egokiena.



AQUARIUS
Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Egunero ikusten duzun norbaitek sorpresa emango dizu. Hortik aurrera gerta daitekeena ezin da aurrikusi, baina neurri haundi batean zure esku dago.




CANCER
Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra

Pozik egon zaitetzke egindako lan mordoagatik. Orain hurrengo pausua emateko prest zaude, baina ez aguroegi ibili. Lasaitxo hobeto egingo duzu.



SCORPIO
Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Nahiz eta lanpetuta egon, zure orduetegiaren kirola egiteari txokoa egin beharko zenioke, zure "body"ak eskertuko lizuke. Gogoratu "mens sana in corpore sano".



PISCIS
Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Aste honetan umore txarrez egongo zara, arrazoa zein den jakin gabe. Agian hartu dituzun ohitura txarren artean bilatu beharko zenuke.



Ongietorriak FORD formula berrira!

- Injekzio elektronikoko 1.6 motorea, 110eko zaldi-potentziaz
- Puntako abiadura 192 km./ordu
- 0-tik 100 km. tarainoko abiadura 9,8 segundutan
- Aleaziozko gurpil-hagunak
- Lainoaurkako eta irispide luzeko argiak
- Bolante deportiboa
- Neumatikoak 185/60 HR X 13
- Esekidura deportiboa, barra egonkortzaileaz aurrean
- Balazten blokeoaurkako ALB sistema (aukerakoa)
- Eguzki-sabaia (aukerakoa)

MUGARRI